

EUSKAL AEKO INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2010eko uztaila


Euskal AEko industri jarduera %4,7 hazi zen 2010eko uztailan

Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2010eko ekainarekin alderatuta %0,1 igo zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2010eko uztailan, lan egutegiko termino homogeneoetan %4,7 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2009ko hil beraren aldean. Urtaoren eragina zuzenduta, %0,1 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2010eko ekainarekin alderatuta.

1. grafikoa. Euskal AEko industri produkzioaren urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhileka

% hazkundera



Iturria: Eustat. Euskal AEko industri produkzioaren indizea (IPI)

(*) 2010eko uztailaiko urte arteko hazkunde zuzendua

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2010eko uztailaiko indizearen bilakaerak den-denen igoerak erakusten ditu, 2009koaren aldean. Energia %5,2 igo da, Ekipo-ondasunak %5,1, Bitarteko ondasunak %4,3; Kontsumo-ondasunak %4,1. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %4,3 igo dira eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak %4,0.

Hil arteko aldaketa, 2010eko uztaila ekainaren aldean, positiboa izan da industri sektore handietan: Ekipo ondasunak %2,7 hazi dira, eta Energia %2,4. Tarteko ondasunek %1,4ko jaitsiera izan dute ekainaren aldean; Kontsumoko ondasunek %1,4koa, Kontsumo iraunkorreko ondasunen (%4,3), eta ez-iraunkorrekoen (%0,5) jaitsierengatik.

2010eko uztailan hazkunderik handienak izandako sektoreak, aurreko urteko hil beraren aldean, Garraio materiala (%19,5) eta Kautxu eta plastikoa (%19,1) eta izan dira.

1. taula. Industri produkzioaren indizean urte batetik bestera hazkunde handienak eta txikienak izan dituzten sektoreak. A-31 sektorea

Igoera handienak izan dituzten sektoreak		Beherapen handienak izan dituzten sektoreak	
Uztaila10 / Uztaila09	%	Uztaila10 / Uztaila09	%
Kautxua eta plastikoa	19,5	Larruaren eta oinetakoen industria	-16,2
Petrolioaren fintzea	19,1	Metalezko eta ez-metalezko meak	-12,9
Garraio-materiala	9,6	Material elektrikoa	-6,7
Industria kimikoa	9,3	Zurgintza	-3,7

Iturria: Eustat. Euskal AEko industri produkzioaren indizea

Urte arteko tasetan Larrugintza eta zapatagintzak (%-16,2) eta Metalezko eta ez-metalezko mineralek (%-12,9) izan dituzte erorketarik handienak.

Uztaileko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Araban (%13,8), Bizkaian (%2,8) eta Gipuzkoan (%2,0). Hil arteko hazkunde-tasa negatiboa izan da Bizkaian (%-1,4) 2010eko ekainaren aldean. Araban eta Gipuzkoan tasak positiboak izan dira, %1,5 eta %1,1.

2. taula. 2010eko Uztaila. Euskal AEko Industri Produkzio Indizearen aldakuntza tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	10Uzt/09Uzt	At/At-1 (1)	10Uzt/10Eka	10Eka/10Mai
Indize orokorra: Euskal AE	4,7	1,6	0,1	-0,7
Araba	13,8	11,3	1,5	-1,0
Bizkaia	2,8	-0,6	-1,4	0,0
Gipuzkoa	2,0	-0,8	1,1	-1,2
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	4,1	2,4	-1,4	3,2
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	4,3	-6,7	-4,3	10,0
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	4,0	5,1	-0,5	1,4
Ekipo-ondasunak	5,1	-1,7	2,7	-0,6
Bitarteko ondasunak	4,3	6,5	-1,4	-2,2
Energia	5,2	-7,6	2,4	5,1

(1) 2010eko urtariletik uztaileira bitartean eman den urte arteko aldakuntza tasa, 2009ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal AEko industri produkzioaren indizea

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua